



2018RAKO ARAUDI PLANA

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, 2018. urtean udal honek onartu edo aldatu nahi dituen araudi edota ordenantzak honakoak direla adierazten da:

UDALERRIAN OBRAK BURUTZEAN LURZORU PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

Begarako Udalak ordenantza honen bidez nahi du Begarako eremu publikoan edo erabilera publikoa duten eremuetan izaera pribatua duten zenbait okupazio arautzea; hain zuzen ere, eremu horien erabilera publikoa kaltetua izan ez dadin, lurzoru publikoak, eta erabilera publikoa duten eremu pribatuak ere, lege ezarririk duten erregimen juridikoa errespetatzea, eta erabilera pribatuarekin bateragarri diren heinean okupazio hori arautzea.

Ordenantza honen bidez, eremu publikoaren erabilerarekin eta zehazki okupazioarekin ematen diren arazoak konpondu eta bideratu nahi ditu Udalak.

HERRITARREN ARRETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Begarako Udalaren nahia da datorren urtean herritarren arreta zerbitzua martxan jartzea, eta horretarako beharrezkoa ikusten du ordenantza bat idaztea, zerbitzu hori definitu eta arautzeko.

ORDENANTZA FISKALAK

Ordenantza fiskalak ia urtero aldatzen dira eta, berez ohikoa izanda, ez litzateke plan baten barruan sartu behar, baina 2018an aurretiazko lan berezi bat egin beharra dago herritarren arreta zerbitzua martxan jartzeko, nahi baita ahalik eta zerga eta tasa gehieneko likidazioa eta kobraketa Herritarren Arreta Zerbitzutik egitea; eta horretarako, 2019rako tasak eta zergak eguneratzeaz gain, ordenantza fiskalak berregituratu beharra dago, 2019an eta hurrengo urteetan ordenantza fiskaletan jasotako zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketak automatikoki ikus ditzaten bai herritarrek bai Herritarren Arreta Zerbitzuko edo udaleko gainontzeko langileek, une guztietan informazio zuzen eta eguneratua izateko.

SEMINARIXOAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Jadanik ireki da Seminarixoa kultur aretoa eta horren erabilera arautzeko beharrezkoa ikusten da ordenantza bat idaztea, zehaztuta uzteko zertarako eta zein baldintzarekin erabili ahal izango den.

UDALTZAINGOKO ZERBITZUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

58/2015 Dekretuak dio hiru urteko epearen barruan Udaltzaingoko zerbitzua arautu beharrezkoa dela, noski indarrean eta bere gaitetik dagoen legedia errespetatuta, eta hori aurten betetzen da, 2018ko maiatzaren 12an; beraz, zerbitzu hori arautu nahi da.

Begara, 2018ko apirilaren 6a